

KOSTUEN EGITURA

Egileak: Ane Lopez, Naia Eguia, Sofia Gomez eta Arai Biteri.

Gure proiektua aurrera eraman ahala, **kostu** batzuk sortuko dira. Esan dugun bezala, gure proiektua nagusiki **norberaren erosotasun** eta **erraztasunean** datza. Horretarako, lokal batzuk alokatuko ditugu herri bakoitzean: Gorlizen, Plentzian, Sopelan e eta Getxon. Lokaletan, eskainiko ditugun gauzak gordeko dira (Takilak eta bizikletak) eta hozkailuak lokalaren kanpoan ipiniko ditugu. Beraz lokalaren barruan, argia, instalazio elektrikoak, altzariak, ... ordaindu beharko ditugu.

Ekintzetarako beharrezkoak dugun materiala ere eskuratzeko gai izan beharko gara. Enpresa aurrera eramateko, propaganda egiteko eta aplikazioa praktikan ipintzeko, telefonoa eta bakoitzaren ordenagailua erabiliko ditugu. Honekin batera, komunikazio atalean komentatu dugun bezala, kartelak eta mota ezberdinetako propaganda ere egingo dugu.

Enpresan lan egingo dugun lau langileok berdin kobratuko dugu, hala ere, **soldata** hauek **ez dira finkoak izango**, lehenengo hilabetetan alokatzen digutenaren arabera eta irabazien arabera finkatuko baititugu (lortzen dugun irabazien arabera). Hilabete bakoitzean aldatzen joango da, hau kontuan hartuz, hilabete batean eguneroko kantitatea baino gehiago kobratuz gero, soldataren zati bat enpresan inbertitu ahal izango genuke. Alokairua kostu finkoa izango da, gure zerbitzuen salmenta edozein izanda berdina ordaindu beharko dugulako. Aldiz, takilak eta bizikletak kostu finkoak izango lirateke, haiseran egiten ditugun erosketak izango direlako.

Proiektua hasterakoan, diru iturri handirik ez ditugunez hilabeteko soldata txikia izango da, baina proiektua martxan jartzerakoan eta honekin diru sarrera gehiago lortzerakoan, soldata finkoa izateko helburua dugu.

Gauzak horrela, hurrengo taulan zehazten ditugu hileko eta urteko gastu orokorrak:

GASTUAK	DESKRIBAPENA	HILEAN	URTEAN
Lokalak alokatzeak	Instalazio elektrikoa: Iturgintza: 1000€ Altzariak : 1000€ GUZTIA: 4.500€ Hau guztia 2 urtetara finantzatua, interesik gabe.	187,5€	2250€
Bizikletak	Bizikleta bakoitza: Felt Six 70: 499€ bakoitza Herri bakoitzean: 30 bizikleta	623,75€	1247,5€

	Urteko kostua 24 hilabetetan ordainduko dugu.		
Takilak	Takila bakoitzaren prezioa: 269€ Herri bakoitzean: 50 takila Urteko kostua hilabetero ordainduko dugu.	562,5€	1125€
Telefonoa	Telefono bakoitzaren prezioa: 260€ Internet tarifa: Moviestarrekin 600mb, 33,90€ hilean	21,6€ 33,9€	259,2€ 33,9*12= 406,8€
Soldata	Lankide bakoitzak kobratu: Soldata aldakorrak izango ditugu, gero eta bezero gehiago eduki ahala finkoagoak izango dira	500€ bakoitza * 4 partaide= 2.000€ (hasiera batean)	24000€
Marketing gastuak	Kartelak, propaganda egiteko beharrezko gauzak,...	45€	540€
	GUZTIRA	3.474,25€	29.828,5€